

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2308

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 8koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira, batetik, 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena, organo berarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituena, eta, bestetik, 2023ko urriaren 31ko Ebazpena, organo berarena, prozesu horretako azken kalifikazioak eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua ematen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko irailaren 8an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 17an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuko salbuespenezko prozesuko deialdia egin zen, eta prozesu horretako oinarri espezifikoak onartu ziren.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartu ziren.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2023ko urriaren 31ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zen.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen duen izangai batek aipatutako 2023ko urriaren 31ko Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen, beste izangai bat prozesutik baztertzeko eskatzeko, prozesuan parte hartzeko betekizun bat betetzen ez zuela argudiatuz.

Kontuan hartuta errekurtsioa hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza bati buruzkoa zela eta baldintza hori betetzen zela alegatzea baino eskatzen ezenez –baldintza horiek betetzea egiaztatzen duten dokumentuak aurkezteko bukaerako izapide hori arte–, aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioan aipatzen zen baldintza betetzen zela egiaztatzeko dagokion administrazio-prozedura bideratu zen, baztertzeko eskatzen zen pertsonari nahitaezko entzunaldia emanda.

Baldintza hori betetzen zen egiaztatzeko prozeduran frogatuta geratu da baztertzeko eskatu zen pertsonak baldintza ez zuela betetzen hautaketa-prozesuko oinarrietan ezarritako datan, eta, ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Aginduak baietsi egin zuen jarritako gora jotzeko errekurtsua, eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko oinarri espezifikoetan ezarritako baldintza betetzen ez zuen pertsona hautaketa-prozesutik kanpo uzteko agindu zuen, prozesu horretan onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak aldatuz eta azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak aldatuz.

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazio organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak onartu zituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena aldatzea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako izangai bat prozesutik baztertzeko.

Baztertutako izangaia eta betetzen ez duen betekizuna zehaztuko dira Ebazpen honen eranskinean. Eranskin hori argitara emango da hautaketa-prozesuko web-orriko Eskakerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Justizia Administrazio organo tekniko laguntzaileetako psikologoaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zuen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2023ko urriaren 31ko Ebazpena aldatzea, zerrenda horietatik izangai hori baztertzeko.

Hirugarren artikulua.– Gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; betiere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekurtsua, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakiok, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezeztat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 8a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.